ASMOZ TA JAKITEZ

194

AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBRE 2008

## Eusko Ikaskuntzak eta Herri Irratiak hamar urteko lankidetza ospatu zuten



Herri Irratia-Loyola Media irratien bidez eta Eusko Ikaskuntzaren zuzendaritzapean zientzia, kultura eta gizarteari buruz emandako irratsaioen hamar urte bete direla eta, urriaren 10ean gizarte ekitaldi bat egin zen Donostiako Miramar Jauregian.

Kike Amonarriz aurkezle ezaguna ekitaldiaren gidari zela, bertan hitza hartu zuten Alex Aranzabal Loyola Mediako Zuzendari Nagusiak eta Xabier Retegi Eusko Ikaskuntzako Lehendakariak. Halaber, oroitzapenak eta iruzkinak ekarri zituzten Urko Odriozola hainbat urtetako moderatzaileak, Josemari Velez de Mendizabal edukien arduradunak Eusko Ikaskuntzaren aldetik.

Eusko Ikaskuntzak eta Herri Irratia-Loyola Mediak argitaraturiko disko konpaktu bat banatu zitzaien bertaratu guztiei. "Hamar urte, hamar irratsaio" izenburupean, 1998tik 2008ra bitarteko berriketaldi aukera bat biltzen du diskoak.

Guztira, 267 dira egindako irratsaioak eta horietan 650 aditu desberdin inguruk hartu dute parte. "Horiek izan dira gure benetako euskarria –esan zuen Xabier Retegik–, zeren, inolako ordainsaririk jaso gabe, beren jakintza ekarri baitute". Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria poztu egin zen Herri Irratia-Loyola Mediaren lankidetzaren bidez, "jakintzaren sozializazioan" eta "kulturaren zabalkundean" aurrera egin delako, eta lan horretan sakonduko duen aro berri bati ekitearen alde agertu zen.

Alex Aranzabalek, bere aldetik, nabarmendu zuenez, Eusko Ikaskuntzak eta Herri Irratia-Loyola Mediak, partekaturiko lan horren bidez, agerian jarri dute: "Zerbitzu publikoa garatu egin daitekeela, eta hain zuzen, kasu zehatz honetan, erakunde pribatuek gauzatzen dutela".

**"Hamar urte, hamar irratsaio"**

- *Investigación de la paternidad* (1998)
- *Zientzia komunikabideak* (1999)
- *La década creadora* (2000)
- *Euskara eta Justizia* (2001)
- *Fotografía y Arte* (2002)
- *Baserria* (2003)
- *Cannabis: ¿droga o medicamento?* (2004)
- *Declaración de Bolonia: títulos universitarios europeos* (2005)
- *Bombardeo de Gernika* (2006)
- *Gazteen hizkera* (2007)
- *Gehitu: 10 años trabajando por la igualdad* (2008)

## Reconocimiento a un pensador crítico: Daniel Innerarity

### Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Saria bizkaitar filosofoari emateko zeremoniak, Ibarretxe Lehendakaria buru zela, gogoeta itxaropentsuak eragin zituen euskal gizarteak aurre egin beharreko erronken inguruan




Bajo la presidencia del Lehendakari Juan José Ibarretxe, el 14 de octubre se celebró en Donostia la ceremonia de entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2008 al filósofo Daniel Innerarity. Además del Lehendakari y del premiado, en el acto tomaron la palabra el Diputado General de Gipuzkoa, Markel Olano, los Presidentes de Eusko Ikaskuntza y Caja Laboral, así como representantes de las siete universidades que intervienen en la concesión del Premio.

Javier Retegui, Presidente de Eusko Ikaskuntza, definió al premiado como "uno de los grandes pensadores actuales", así como "un intelectual en pleno desarrollo, con una potente obra en marcha y con una enorme proyección futura". Juan Mª Otaegi señaló que el pensamiento de Innerarity es "una puerta abierta a la necesidad de cambios profundos". En este sentido el Presidente de Caja Laboral lamentó que, en un mundo atrapado en la inmediatez, apenas haya espacio para reflexionar sobre el futuro.

Por su parte, el Lehendakari Juan José Ibarretxe puso el acento en el compromiso intelectual de Innerarity y en su "manera valiente de defender la labor de la política" como una tarea honrosa, compleja y difícil, así como su postura crítica con el "orden mundial" detrás del cual, dijo, se pueden buscar explicaciones a las guerras o las crisis económicas.

Tras agradecer el galardón, Daniel Innerarity expresó su convicción de que "la sociedad vasca nos está exigiendo a todos una nueva cultura política, un cambio de mentalidad, una política con más ideas y menos tácticas, con más proyectos y menos maniobras, que introduzcamos una perspectiva de largo plazo y abandonemos las viejas categorías que todavía pueblan el discurso político". Pero advirtió que, para responder a este requerimiento, se necesitará una "mayor modestia personal, compatible con la mayor ambición colectiva, para encarar con esperanza" el futuro como sociedad.

## Erakunde Bizitza


(1)


(2)

### Hauteskunde prozesua

Azaroaren 5ean izendatuko dira Eusko Ikaskuntzaren Lehendakaritza eta lurralde Lehendakariordetzetarako kandidaturak. Hilaren amaieratik aurrera, bazkideak hautagaiei

**Cinco mesas electorales** se habilitarán para las elecciones del 26 de diciembre en las sedes de Baiona, Bilbao, Donostia, Gasteiz e Iruña

dagokien dokumentazio guztia jasotzen hasiko dira, Ohiz kanpoko Batzar Nagusian botoa emateko eskubidea erabili ahal izan dezaten. Batzar Nagusi hori abenduaren 26an egitekoa da, egoitza anitzeko sistemaren bidez, eta hartarako hautesmahaiak prestatuko dira lurralde bulego guztietan. Hiru egun geroago, behin betiko emaitzak jakinaraziko dira.

### En Chile y Argentina

Javier Retegui, Presidente de Eusko Ikaskuntza, viaja este mes en visita oficial a Chile y Argentina. La agenda de actividades incluye sendas conferencias en la Universidad de Santiago de Chile y en la Euskal Etxea de la capital (1). Además de participar en la Semana de Innovación y Emprendimiento, mantendrá encuentros con representantes gubernamentales, académicos y empresariales. En Argentina, entre otros actos, inaugurará la biblioteca con fondos editoriales de Eusko Ikaskuntza que se ha preparado en la Universidad de La Plata.

### X. Diharce, 'Iratzeder'

Urriaren 13an zendu zen Xabier Diharce (2), *Iratzeder* literatura izenordez ezaguna. Donibane Lohitzunen jaioa zen 1920an,

**Iratzeder** est décédé à l'abbaye de Belloc le 13 octobre

eta Manuel Lekuona Saria jaso zuen 1994an. Bizitzaren parterik handiena erlijioaren zerbitzuan eman zuen Belokeko beneditarren abadian; laurogeiko urteetan, Afrikan misiolari egon zen 17 hilabetez. Euskal olerkari honek, olerki, erlijio itzulpen eta zenbait antzerkirekin osaturiko emaitza zabala utzi du. Euskaltzain osoa zen.

## ENE

### ENE 2008

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da beste aldi batez. Ihardunaldi hau 1948an sortu zen Eusko Ikaskuntzaren ekimenez. Aurtengo ekitaldien egitaraua azaroaren 17an aurkeztuko da komunikabideen aurrean. Aurrekoetan bezalaxe, Internet bidezko iharduera parte hartzaile bat proposatuko da, bereziki gazteei zuzendua, eta ENE Sariaren bidez Euskal Herritik kanpoko erakunde bat sariztatuko da euskara sustatzearen alde egindako lanagatik.

## Investigación

### Ayudas por Secciones

El 30 de noviembre se cierra el plazo de admisión de propuestas para las Ayudas a la Investigación que anualmente ofrece Eusko Ikaskuntza a través de sus Secciones Científicas. Pueden presentarse a título individual o en equipo, y versar sobre cualquier tema relacionado con la cultura y la ciencia vasca. El período para realizar la investigación es de un año. Las dotaciones económicas nunca superarán los 1.600 euros brutos.



**Bases** de las Ayudas e impresos de solicitud en: www.eusko-ikaskuntza.org/eu/becas

## Asmoz Fundazioa

### Sols contaminés

Tout au long du mois d'octobre, la Fondation Asmoz et SPRILUR ont donné ensemble un cours sur le Traitement des Sols Contaminés. Le programme a consisté en quatre conférences, deux ateliers et deux visites guidées, tout cela à la charge de spécialistes qualifiés. Les 41 élèves qui y assistaient eurent l'occasion de connaître la législation concernant la qualité du sol et les procédés pour la mise en marche de plans d'excavation dans des sols contaminés.



## Gazteria

### Bazkide gazteekin bilerak

Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailak martxan jarritako ekimenen berri emateko xedearekin jarraituz Bizkaiko eta Arabako bazkide gazteekin bildu zen urrian zehar. Urriaren 7an Gasteizen eta 15ean Bilbon egindako bilerak *Ei Gazte!*-k arabar eta bizkaitar gazteen aurrean sail berriaren aurkezpen ofiziala, proiektu eta ekimenen berri eman eta batez ere bazkide gazteen iritziak, ideiak eta proposamenak jasotzeko aukera paregabea bihurtu zen.

### Huella Ecológica

*EI Gazte!*, área de juventud de Eusko Ikaskuntza, puso en marcha el pasado septiembre el proyecto *La Huella Ecológica, y tú ¿qué vas a hacer?* para la sensibilización de la juventud en el desarrollo sostenible. Dos grupos, formados en Hegoalde e Ipar Euskal Herria, realizarán una convivencia en Zarautz del 28 al 30 de noviembre que permitirá contrastar datos y elaborar las primeras conclusiones. El proyecto finalizará en el mes de enero.



## Programa Enblematikoak

### Progreso genuino y duradero

**Berrikuntza iraupenerako**

Abenduaren 2, 3 eta 4an, *BAI (Berezko Aurrerapen Iraunkorra). Berrikuntza Iraunkorrerako Kaleidoscopioa* Jardunaldiak egitekoak dira Bilbon, Euskal Herriaren Berezko Aurrerapen Irankorrerako Programa Enblematikoak antolaturik. Nazioarteko mailako 20 inguru txostengilek hainbat gairi buruz eztabaidatuko dute: Enpresa Dinamika, Erantzukizun Soziala, Hirigintza, Energia, Sistemen Dinamika: Gizarte eta Ekonomia Berrikuntza, Mugikortasunaren Kudeaketa eta Girotu. Argibide gehiago: **bai.eusko-ikaskuntza.org/kaleidoskopioa**

**Cluster TIL-ITS**

Javier Retegui, Presidente de Eusko Ikaskuntza, e Iñaki Arriola en representación del Cluster del Transporte y la Logística – ITS Euskadi (TIL-ITS) firmaron el 8 de octubre un convenio de colaboración que vincula a ambas instituciones en el marco del Foro de Concertación sobre Gestión de la Demanda de Movilidad del Programa Emblemático para el Progreso Genuino y Duradero. El objetivo del acuerdo es promover todo tipo de acciones conjuntas para fomentar una nueva cultura de la movilidad sostenible en Euskal Herria.

### EuskoSare

**Mujer y cooperativismo**

Forokoop, foro para el debate y la reflexión sobre temas cooperativos, en el que participa EuskoSare, celebrará en el Palacio Euskalduna de Bilbao el 20 de noviembre una Jornada dedicada a *Los nuevos retos de las cooperativas ante la ley de igualdad*. Se quieren analizar las posibilidades que el binomio mujer-cooperativismo ofrece al progreso social, empresarial y comunitario.

**Mikronarrazioak Lehiaketa**

Eusko Ikaskuntzako EuskoSarek hirugarren Mikronarrazioen Nazioarteko Lehiaketara deitu du, edozein nazionalitatetako idazleei zuzentzen dena. Testuak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez aurkez daitezke eta euskal gaia –adierarik zabalenean– ukitu beharko dute. Obra bakoitzaren luzera 300 hitzekoa izango da gehienez. Onarpen epea azaroaren 30ean amaituko da. Mikronarrazioen irabazleak 500 euroko saria jasoko du.



**Más información:** www.euskosare.org

## Jornadas, Cursos, Conferencias

### Jardunaldia Basaurin

Eusko Ikaskuntzaren eta Basauriko Udalaren arteko lankidetza hitzarmenaren barnean, *Folklore eta etnografia ikerketa Euskal Herrian* Ihardunaldia egin zen urriaren 4an. Hainbat etnografok zein gizarte eta kultura antropologok, hizkuntza alderdietako adituekin batera, diziplina horietako ikerlanak zertan diren aztertzeari ekin zioten eta lan metodologia desberdinei buruz eztabaidatu zuten.

### Evaluación de Impacto Ambiental

A iniciativa de la Sección de Ciencias Naturales a lo largo del mes de octubre en la sede del Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi, en Bilbao, se impartió el Curso de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental. Con buen nivel de participación, el curso se orientó a la capacitación de profesionales para elaborar Estudios de Impacto Ambiental, cumpliendo así con los requisitos contemplados en la legislación.

### Ciclo de conferencias

La Vicepresidencia territorial de Álava de Eusko Ikaskuntza organizó en octubre en Gasteiz un ciclo de conferencias en torno al tema *La imagen de la mujer en el mundo medieval: Sombras proyectadas*. La ponente, Lucía Lahoz, Profesora Titular de la Universidad de Salamanca, habló sobre la mujer como protagonista y objeto de la Historia medieval, así como sobre sus representaciones en el gótico alavés.

### Projectique, XIVèmes

Eusko Ikaskuntza et Eralan ont organisé les 30 et 31 octobre à Bidarte et Donostia, respectivement, les XIVèmes Journées de Projectique sur le thème *Innovation, complexité et compétences*. Se celebraron debates, mesas redondas y sendas conferencias a cargo de Nimal Jayaratna, consultant en *Systems thinking*, et Guy Le Boterf, consultant en dispositifs de management et de développement des compétences.

### Ohidüra eta sorkuntza

Azaroaren 8an Barkoxen *Ohidüra eta sorkuntza Zuberoan* Ihardunaldia egitekoa da, ondoko egitarauaren arabera: Ohidüra maskaraden ungurüan (J.M. Bedaxagar: Maskaraden ohidüraz mintzo. N. Lougarot: Buhametaz bi hitz); Xiberoko dantza saileko edo üngürüko sorkuntzak (P. Queheille, Barkoxtar dantza sortzaile; Alaitzeko: Amaren alabak); Etxebarre filma (M. Etchecopar-en ahotik); Eztabada: Zer da ohidüra? Zer da sorkuntza?

### Sobre ayudas públicas

El 19 de noviembre en Donostia se celebrará la Jornada *La reforma en el control de las ayudas públicas y su incidencia en Euskadi*, organizada por la Sección de Derecho. Tras la reciente sentencia del Alto Tribunal europeo en relación a las ayudas públicas vascas, la Jornada servirá para analizar las últimas reformas comunitarias sobre ayudas públicas y su incidencia en las Administraciones y territorios forales.

### Testuen argitalpena

Abenduaren 11 eta 12an, Deustuko Unibertsitatean *Euskal testuen argitalpena: gaurko ikuspegiak, etorkizuneko ikuspegiak?* Nazioarteko Ihardunaldia egitekoa da. Bi helburu ditu: argitalpen alorreko nazioarteko adituen bilgune bat sortzea eta edizio digitaleko berrikuntzei buruzko eztabaidari bide ematea. Bertan hainbat erakundetako txostengileek hartuko dute parte: EHU, Deustuko Unibertsitatea, Londresko King's College, Roma Tre eta Roma Tor Vergata.

### Hizkuntzaren aldaketak

Abenduaren 12 eta 13an, Baionan, Eusko Ikaskuntzak eta Iker, Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Guneak *Aldaketa eta aldaerak euskaran eta euskal testugintzan* solasaldia antolatzen dute. Hala hizkuntzalaritzan nola testuen sorkuntzan gertaturiko aldaketak eta aldagaiak berrikustea ditu helburu. Hainbat alorretako alderdiak aztertuko dira: dialektologia, hizkuntzalaritza, diakronia, literatura eta testuen historia.





Fot. Antxon Aguirre 3digitala.com









## Udalak

### Urrozko azokak

Eusko Ikaskuntzako bazkide diren Ana Zabalza, Amaia Legaz, Mercedes Galan eta Carlos Jesus Martinez Alavak osaturiko taldeak Urrotz Hiriko azoka eta merkatuei buruzko ikerketa bat egingo du, Ana Zabalza historialariaren gidaritzapean. Bertan, gai horren hainbat alderdi aztertuko dituzte, hala nola horien Erdi Aro eta Aro Berriko historia, lege alderdia, espazioaren kudeaketa eta hiri garapena.

### Documentos de Laudio

Como complemento al inventario de la documentación histórica de Laudio contenida en los principales archivos históricos españoles realizado por el socio Iosu Curiel en el marco del convenio de colaboración con Eusko Ikaskuntza, la historiadora Rosa Ayerbe ha realizado la misma labor con la documentación conservada sobre el Valle de Llodio y su santuario de El Yermo en el Archivo Diocesano de Calahorra.

### Antzuolan

Antzuolako Udalarekin sinaturiko hitzarmenaren esparruan, Mertxe Trantxe eta Iñigo Imaz bazkideek *Industrias Tellería*, larru onduetan, uhalerian eta eratorrietan espezializaturiko enpresaren dokumentu funtsaren antolaketa eta informatizazioa burutu dute. Ukaezineko balioa eta aberastasuna duen funts pribatu bat da, 1934-1963 bitartea hartzen duena. Lan hau Antzuolako larrugintzaren historia berreskuratzeko ahaleginean kokatzekoa da.

### Ferrocarril de Portugalete

El 2 de octubre se presentó la publicación *120 aniversario del ferrocarril Bilbao-Portugalete: La Canilla (1888-2008)*. Eusko Ikaskuntza ha colaborado de la mano de la socia Olga Macías, autora de uno de los textos y encargada de la revisión técnica de los restantes. Con esta edición, incluida en la colección "Tesoros Portugalujos", se quiere conmemorar el 120 aniversario de la llegada del tren a Portugalete.

### Jose Letona Beka

Arrasateko Udalak Jose Letona Bekarako deia zabaldu du, Pedro Viteri Arana, orain dela ehun urte hildako arrasatear filantropo eta Gipuzkoako irakaskuntza laikoaren bultzatzaile handiari buruzko ikerketa historikoa egiteko. Bekaren diru kopurua 10.000 eurokoa da, eta lana entregatzeko epea urtebetekoa. Eskabideak abenduaren 12a baino lehen aurkeztu beharrekoak dira.

### Misterio teatral

*La Antigua. Misterio teatral / Misterioa taula gainean* es el título de la representación histórica escenificada el 25 de octubre en la ermita de Santa María de Zumarraga. Escrita y dirigida por el socio Juan Aguirre, dentro del convenio con el Ayuntamiento, la obra consiguió llenar la "catedral de las ermitas" y atraer la atención del público con un relato que combinó historia y leyenda, emoción y humor.

### Firma con Isaba

El 27 de octubre, Eusko Ikaskuntza representado por Sixto Jiménez, Vicepresidente por Navarra, y el Ayuntamiento de Isaba de mano de su Teniente Alcalde, Raquel Marco, firmaron un convenio de colaboración cultural y científica que hace el número 17 de los establecidos con Ayuntamientos navarros. La firma se desarrolló en la Casa de la Memoria de Isaba en presencia de su director, Roberto Sanz.

## XVIIème Congrès d'Études Basques

### Objectifs

Le XVIIème Congrès des Études Basques aura lieu dans une année à Gasteiz autour du thème "Innovation pour le progrès social durable". Ses objectifs sont au nombre de cinq:

1. Partager des connaissances, réfléchir, impulser et générer une conscience d'innovation pour le progrès social durable.
2. Faciliter l'interdisciplinarité, le dialogue intergénérationnel, l'égalité des chances, la diversité linguistique et la présence de nouveaux langages.
3. Motiver l'innovation sera l'une des propositions théoriques et pratiques et l'innovation sera également présente dans les interventions. Elle s'érigera en axe transversal du Congrès.
4. Promouvoir la participation ample et diverse des personnes ou acteurs sociaux souhaitant appuyer la tâche impulsée par Eusko Ikaskuntza ainsi que par tous les membres de cette Entité.
5. Encourager l'émergence d'idées et de pratiques contextualisées, venant enrichir la diversité des tâches menées par Eusko Ikaskuntza.

http://www.eusko-ikaskuntza.org/fr/congresos/

ASMOZ TA JAKITEZ

194

AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBRE 2008

## Argitalpenak





### Jentilbaratz, 9 y 10

El número 9 de *Jentilbaratz*, Cuadernos de Folklore, recoge un amplio catálogo de trabajos sobre carnavales, danzas, música e investigación, contemplados desde la tradición a la vez que desde la actualidad de las celebraciones festivas. Se recogen las actas del Seminario de Folklore: *La investigación sobre música y danza tradicionales en el momento actual*. Con el título *Pandereta jotzen ikasteko eskuliburua*, el número 10 ofrece un método de pandereta de Urko Arozena basado en ejercicios prácticos con el que se pretende paliar en lo posible las carencias apreciadas en otros trabajos precedentes.

### Eleria, 17

*Eleria. Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria*ren 17. aleak "Gaiak" atalean ondokoak jorratzen dira hainbat azterlanetan: Euskal Zuzenbide Zibila, Nafarroako Foru Zuzenbidea, Iparraldeko euskararen inguruko eskumena eta egoera juridikoa. Bestalde, Gregorio Monreal, Zuzenbidearen historialaria elkarrizketatzen du Itziar Alkortak. Horietaz gainera, Luigi Ferrajoli-ren lan batek "Zuzenbidearen Klasikoak" atalekо beste sail bat abiatzen du; eta, azkenik, Jon Mirena Landa eta Enara Garrok egungo politika kriminalaren adierazgarri diren testu batzuk aukeratu eta horien iruzkina egiten dute.

## Eusko Ikaskuntza Uhinetan

### Bizkaia Irratia

Joan den urriaren 16an, Jon Kortazar, Eusko Ikaskuntzako Bizkako Lehendakariordeak eta Dorleta Alberdi, Bizkaia Irratiako Zuzendariak 2006an egindako hitzarmena berritzea sinatu zuten. Hitzarmen horren arabera, kultura eta zientzia gaien inguruko bi irratsaio zabalduko dira hilabetean, ordu erdiko iraupenekoa bakoitza eta euskaraz emana erabat. Hitzarmen horri esker, dagoeneko 24 orduko programazioa zabaldu ahal izan da. Udane Goikoetxea izan da berbaldietako moderatzailea.

### Euskalerria Irratia

2005 urtearen amaieran, Eusko Ikaskuntza elkarlanean hasi zen Euskalerria Irratiarekin, Iruñea eta eskualdeko euskarazko irratiarekin. Kultura, gizartea eta zientzia gaien inguruko irratsaio hauek, hasieran Hiart Leitzak gidatuak "Bazkalburukoa" emanaldiaren barnean, 2006tik gaur artekoan, Mikel Bujanda, irratiko zuzendariaren gain daude eta asteartero zabaltzen dira 15:30tik 16:30era (eta ez 15etatik 16etara joan den hilabeteko alean esaten zen bezala).

## Agenda

### Azaroa / Noviembre / Novembre

4 Donostia.
10º aniversario de *Euskonews & Media*

4 Donostia. Curso *Nociones básicas sobre e-Admnistración y Gestión de Documentos*

8 Barkoxe.
Jardunaldia *Ohidüra eta sorkuntza Zuberoan. Tradition et création en Soule*



11 Bilbao. Conferencia de Gonzalo Navaza:
*Literatura gallega de hoy*



14 Donostia.
Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*



14 Bilbao.
VIII Jornadas Salud y Sociedad.
*Inmigración y atención socio-sanitaria*



19 Donostia. Jornada *La reforma en el control de las ayudas públicas y su incidencia en Euskadi*

19 Andoain. Presentación de libro
*Alberto Aguirre. Musika Lanak / Obra musical*



20 Bilbao. Jornada de Forokoop sobre *Los nuevos retos de las cooperativas ante la ley de igualdad*

21 Donostia. Pleno de Jakiunde

25 Bilbao. Symposium de Historia de Bilbao:
*Bilbao en el mundo Napoleónico (1799-1815)*



28-30 Zarautz.
Convivencia de los grupos participantes en el proyecto *La Huella Ecológica, y tú ¿qué vas a hacer?*



### Abendua / Diciembre / Décembre

2-4: Bilbao.
Jornadas *BAI. Caleidoscopio de innovación para la sostenibilidad*

3: Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE)
Stanford. Presentación del libro *The Legal Status of the Basque Language Today*

11-12: Deusto. *Euskal testuen argitalpena: gaurko ikuspegiak, etorkizuneko ikuspegiak? Nazioarteko Jardunaldia*

12-13: Baiona. Kolokio *Aldaketa eta aldaerak euskaran eta euskal testugintzan*

19: Iruñea.
Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra / *Comité Ejecutivo y Junta Permanente*



22: Donostia.
Acto 90 aniversario de Eusko Ikaskuntza

26: Donostia. Batzar Nagusia: hauteskundeak / *Asamblea General: Elecciones*

**www.eusko-ikaskuntza.org/eu/novedadesyagenda**

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.

**Secretaria de Publicaciones**
Eva Nieto

**Harpidetzak**
Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
María Díaz de Haro, 11-1
48013 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 8:30-14:00 eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00-15:00.

**Horario**
De lunes a jueves de 8:30-14:00 y de 15:30-17: 30; viernes de 8:00-15:00.

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.

**Horaire**
Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et 15:00-18:00; vendredi de 8:00 à 12:00.

Argazkiak:
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa eta 3digitala.com (Iñigo Madina de Salustiano)

L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga

90 1918-2008 ASMOZ TA JAKITEZ EUSKO IKASKUNTZA